

BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

BANAKETA BIDEAK



Hasieran, enpresaren web orrialdean ez da erosteko aukerarik egongo, produktuaren informazioa, betaurreko mota desberdinak (diseinu mota, koloreak..) eta non lortzeko adierazpena agertuko da baizik.

Printzipio batean, produktua **multioptiketako dendatan** bakarrik erosi ahal izango dira. Negozioa hazi ahala, **online erosteko aukera** egongo da, Espainia osotik produktua bidaltzeko aukera egongo da. Badakigunez horrek kostu extra bat duela, bidalketa gastu minimo batzuk jarriko ditugu. Gastu horiek minimoak izango dira bezeroak ez galtzeko.

Gainera, buruan daukagun aukera edo ideia, merkatua ondo badoa eta diru-sarrera nahiko baditugu, Espainia osotik gure denda propioak zabaltzea da. Baita, multioptiketan saltzen jarraiko dira. Adibidez, herri guztietan ez daude multioptikas dendak orduan leku hori denda jartzeko leku aproposa da; diru-sarrera gehiago lortzeko eta ezagunagoak izateko.



KOMUNIKAZIOA

Komunikazioari dagokionez, bezeroek **web orrialde** bat izango dute eskuragarri gure enpresarekin kontaktuan jartzeko; e-maila (modabetaurrekoak@gmail.com), telefonoa ([944 147 562](tel:944147562))... eta nahi izanez gero gure produktuak web gunetik eskuratzeko. Horrez gain, **sare sozialak** erabiliko ditugu gure produktuek ikusgarritasuna lortzeko (**@moda.betaurrekoak**). Gainera, sare sozialetatik bertatik produktuak erosteko aukera izango dute bezeroek.

